

Karpoko tunela

Eskuko nerbio bat –nerbio medianoa– kaltetzen duen gaitza da. Nerbio honek, esku ahurreko eta atzamar batzuetako sentsibilitatea eta indarra ahalbidetzen ditu. Eskumuturreko bide oso estutik zeharkatzen du (karpoko tunela). Arazoak nerbioa erreten horretan konprimaturik geratzean azaltzen dira. 40 eta 60 urte arteko emakumeek izan ohi dute eta bi eskuak kalte ditzake.

Zeintzuk dira bere eragileak?

Sarritan ez dugu bere jatorria ezagutzen eta gaitz idiopatikoa dela esaten da. Beste batzuetan, eskuarekin mugimendu errepikakorak egiten diren lanekin lotu daiteke. Diabetesa, tiroidearen gaitzak, haurdunaldia edo gehiegizko pisua duten pertsonetan ere sarritan azaltzen da.

Zein arazo eragiten ditu?

Atzamarretan inurridura eta ziztadak dira ohikoenak, batez ere gaeuz. Esku, eskumutur eta besurreko mina ere senti daiteke, eta eskua handituta edo lo dagoenaren sentsazioaz esna daiteke. Kasu oso aurreratuetan eskuetako edota atzamarretako indarra gal daiteke.

Nola diagnostikatzen da?

Kasu gehienetan familia-medikuak diagnostika dezake, pazienteak sintomak azaldu ondoren eta kontsultan miaketa erraz bat eginez. Zenbait kasutan beharrezkoa izan daiteke elektromiografia deituriko froga egitea. Froga hau zentro espezializatu batean egin behar da eta nerbioaren egoera zehatza azaltzen digu.

Ez da froga konplexua, ezta oso deserosoa ere, eta ez da ordu erdi baino gehiago behar hau burutzeko. Erradiografiak eta analitikak ez dira beharrezkoak.

Zein da tratamendua?

Tratamendurik eraginkorrenak gaeuz eskumuturrean ferula xumea erabiltzea edo kortikoesteroidedun infiltrazioa egitea dira. Zenbait kasutan, zure medikuak botikak ere emango dizkizu. Kasu larrienenetan, ebakuntza kirurgiko txiki bat egin behar da. Ospitalean egiten da ospitaleratze beharrik gabe (ez da anestesia orokorrik behar). Orokorrean, 3 edo 4 asteren buruan pazientea guztiz sendatuta egoten da.

